



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2009-04-04**

VIIURTEA 1.671.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Produktuari eman nahi diote protagonismoa Slow food-eko sukaldariek. ESTI EZEIZA

## BERTAKO PRODUKTUAK ETA MERKATUA SUSTATZEKO EKIMENA

**TOLOSA** Zerkausiko larunbateroko azokan sukaldatu eta erosiko dute sukaldariek, Tolosa Gourmeten baitan antolaturiko ekitaldietan 7

## Besitin eta Larraitz auzoak batzeko obra abiarazi dute 4

**Arrueren lana bildu dute 'Antonio Arrue: idaztiak eta hitzaldiak' liburuan**

**ASTEASU** Euskaltzaindiaren 'Euskaltzainak' liburua bosgarren zenbakia da 5

**villabona**  
optika

eguzkitako lente graduatuak \*betaurreko graduatua egitean

Kale Berria 23A • Villabona • Tel.: 943 11 18 40

## Dantzari Txiki Eguna antolatu du gaurko Udaberrik

**TOLOSA** Herrian zehar 300 ume inguru ariko dira dantzan goiz eta arratsaldez 6



A. IMAZ

**IKER KARRERA** TOLOMENDIKO KUDEATZAILEA

«Aurreikusita zeuden inbertsio batzuk egin gabe geratu dira»

**AMEZKETA** Krisiaren ondorioz udal aurrekontuek hartutako beherako jera aztertu du 2

**NUTRIZIO KONTSAULTAK:**  
Asteartero eskaintzen dira 'DietaFacil' etxearen eskutik. Honek eraginkortasun handiko dieta lantzen du elikaduraren berreziketan oinarrituta

**farmadenda**  
\_parafarmazia

lurre auzoa, 7 • Tolosa  
Tel.: 943 57 95 28  
farmadenda@euskalnet.net



**E Elkarrizketa**

**IKER KARRERA** ▶ Tolomendiko kudeatzailea

**Krisia** » Tolosaldeko Udalen aurrekontuak beherakako bidea hartu du kapitalismoaren krisiaren pisupean. Azterketa egiteko prest Tolomendin aurkitzen da Iker Karrera.

**ASIER IMAZ**

Tolomendiko bulegoan bileratik bilerara dabil Iker Karrera (Amezketarra, 1974). Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak kudeatzailea da amezketarra. 28 herriren garapena sustatu nahian dabilta lanean, krisiarekin edo krisirik gabe.

**Zein izan da herri txikietan kapitalismoaren krisiaren eragina?**

Zenbakietan oinarrituta erantzun bat emateko azkarregi da. Duela urtebete dena oso ondo zihono da lehengo udan hasi zen gainbehera. Oraindik krisiaren eraginari buruzko datu gutxi dago, batez ere udaltxeei dagokienez.

**Datu zehatzak jakin ez arren, jabetzen hasiak gara, ezta?**

Lanpostua galdu duen hura jabetzen da, eragina bere egunerokotasunean bizi duelako. Errealitate hori hor dago, baita herri txikietan ere, harentzat dena erori da: bapatean mundua erori zaiola, krisia gordintasun guztiarekin bizitzen ari da. Herritarrak osotasunean hartuta, krisiaren aurreko egoera nolakoa zen aztertu behar da. Herri txikietan, kasu askotan, langabezi maila hutsala zen. Nondik abiatzen zaren ere kontutan hartu behar izaten da. Krisiarekin langabezia igokoa da baina Gipuzkoako beste hainbat zonaldetan gehiago pairatuko dute herri txikietan baino. Batzuk firmatuko lukete langabezi tasa %3,5ean edukitzea, 15ean edo 20ean egongo direlako.

**Ekonomia erreala eta errealtitara ere iritsi da beraz krisia.**

Ezin da ukatu: krisia erreala da herri txikietan eta handietan. Sekto-



ASIER IMAZ

# «Aurreikusitako inbertsio batzuk burutu gabe gelditu dira»

reka berriz, ondorioak agerian gelditzen ari dira industria alorrean, batez ere eraikuntzan. Zerbitzuen sektorea ere atzetik dator. Herri txikiak kontutan hartuta, eraikuntzan jende askok lan egiten duela aipatu behar da. Hala eta guztiz ere, eraikuntza enpresa handiak ez direnez, gertutik gertura ibiltzen direnak hain zuzen ere, funtzionatzen jarraitzeko aukera izan dute. Honek ez du esan nahi langabezian inor gelditu ez denik. Beste faktore bat atzeritiko etorritako langileak dira. Krisia noizten lehenak eurak izan dira.

**Tolomenditik zer egin daitezke krisiari aurre egiteko?**

Onartu behar da hiri aurre egiteko gure gaitasuna oso mugatua dela. Ez da eskualde mailako krisia, ez, mundu mailakoa baizik. Gure muga guztiekin ere, une honetan ekimen batzuk martxan ditugu. Eusko Jaurlaritzako Landa Garapen Zuzendaritzak ateratzen dituen diru laguntza batzuk martxan daude, nolabait bi bidetan.

**Zeintzuk dira bi ekintza bide horiek?**

Alde batetik azpiegituren inguruko gura daukagu, hau da, aktibitate ekonomikoak garatzeko guneak sortzeko laguntza: tailerrak edo enpresak kokatzeko guneak, lokalak, ofizinak... 2013. urtera arte martxan egongo dira diru laguntza hauek eta martxan dauden enpresen azpiegiturak hobetzeko, guneak egokitzeko edota berriak sortzeko erabil daitezke. Sektore pri-

matuak bezala publikoak ere lor ditzakete laguntza hauek, Europarekin elkarlanean herri txikientzat zuzendurik baitaude. Bigarren bidea enpresa txikiak, 10 langiletik beherakoak, sorrerako diru-laguntzak dituenak da. Hauek ere 2013ra arte egongo dira. Egoera txarra da, badakigu, baina aukerak eta laguntzak ere hor daude herri txikietan aktibitate ekonomikoak sortzeko.

**Udaltxe txikietan betiko borroka bat dago: proiektuak bai baina dirurik ez. Krisiarekin areagotu egin al da gatazka hori?**

Bai. Hori da krisiarekin une honetan gehien nabaritzen ari garen puntua. Tolomenditik puntu bat aziparratu beharko bagenuke, horixe da: administrazioak orokorrean eta horren barnean udaltxeak, inbertsioei aurre egiteko dituzten arazoak. Alde guztietatik aktibitate ekonomikoak moteldu egin da eta ondorioz errekaudazioa gutxitu egin da. Horriaz Diputazioari udaltxeek egin zituen diru itzulketak gehitu behar zaiola. Aurreikusitako inbertsio batzuk burutu gabe gelditu ziren. Aurtengo egoera ere antzekoa da. Eguneroko funtzionamendurako behar diren zerbitzuak mantenduko dira baina inbertsio berriak egitea oso zaila da. Bizi duten egoera oso kaxkarra da eta horri buelta ematea kostatzen da.

**Ekonomikoki balantzeak nola aurkitzen dira eskualdeko udal-**

Denetik dago. Batzuk ondo daude eta beste batzuk oso gaizki.

**Horri aurre egiteko, denbora al da erremedio bakarra?**

Bai. Proiektu eta ekintzetan geldialdi bat egongo da, motelaldi bat. Hortik ateratzeko denbora da erremedio bakarra: biltzen jarraitu, saneatu eta berriro ekin aurrera.

**Tolosaldeko elkarte izanik, lehen sektorea ere aztertuko duzue ezta?**

Lehenbiziko sektorean alde positiboak eta negatiboak ekar ditzake krisi honek. Alde batetik etxebizitzaren «boom» horren nolabaitko geldialdia egon da, eta hori lehen sektoreak zuen mehatxu handienetakoa bat zen. Ezinbestekoak diren lur horien gainean etxebizitzaren espekulazioak presio handi bat egiten zion.

**Zenbaitzat tentazioa ere izango da?**

Baita ere, izugarriko tentazioa gainera. Zenbait etxea edonon egin zezaketela uste zuten, nahiz eta arauetan jasorik ez egon. Lehen sektoreari presio horrekin lehiatzea oso zaila egiten zitzaion. Hori amaitzen ari da, nahiz eta hainbatek bapatean buelta eman eta lehengo egoerara itzuliko garelako uste dute. Hau ez da lehengora itzuliko, hori bukatu da, eta horrek lehenengo sektoreari mesedea ekarriko dio. Presio hori gutxitu egongo zaiola eta arauak eta kontrol gehiago etorriko da. Krisiaren efektu positibo bat hau dela esango

nuke. Beste bat ere aipatuko nuke: beste sektoreak ekonomikoki ongi dihoztenean, lehen sektorea ez da hain erakargarria langileentzat. Baina beste sektoreak krisia sufritzen dutenean, lehenengo sektorea hor dago, beti baitago hor. Nonbaitetik jan beharra dagoenez, alternatiba izan daiteke, lan poltsa bat sor daiteke. Eskulana edukitzea positiboa dela iruditzen zait.

**Energia berrien aldeko apustua ere mintzagai da azkenaldian.**

Krisiak energia mailan duen eragina ere lehen sektorearekin lotuta doa. Munduko hainbat agintari energia berrien alde ari dira hitz egiten azken egun hauetan. Petroleoa ordezkatuko dutenak, ingurugiroa gehiago errespetatuko dutenak,... Aldaketa bat ematen ari dela dirudi. Hori ona da, lehen sektoreak zer eskainia bai baitu aldaketa honetan.

**Baina lehenaz gain, alde txar berririk ere ekarriko ditu krisiak.**

Bai. Krisiaren ondorioz, gizarteak erosteko ahalmena galduko du. Horrek eragin zuzena izan dezake lehen sektorean. Adibide bat jaritzeko, Tolosalda Babarruna edota Idiazabalgo Gazte aipatuko ditut. Jendeak oinarritzko janaria erosi-ko du, Gaztaren kasuan gazta jaten jarraituko du baina agian merkeagoa erosi-ko dute. Tolosalda Babarrunak ere oinarritzko poltsa hortatik kanpo gelditzeko arriskua eduki dezake.

**Krisi garaia aukera garaia ere izan ohi da.**

Beste erremedioirik ez dago. Herri bat gestioatu nahi duenak aurrerabegi eratu behar du. Ikuspegi hori ez baldin badu hobe etxean gelditzea eta beste bati uztea lekua. Krisia aukera garaia dela zabalten ari da, nik pertsonalki horrela uste dut. Askotan esan dugu gure artean, hemen gertatzen ari zena ez zela normala, neurritzeko zehazteko, honen lehertu beharra zeukala. Lehertu da. Eta neurri batean bazegonen horren beharra: jende bat arrastoan sartzeko.

**Eta hemendik aurrera...**

Orain ekonomia berri bat garatu beharko da, zenbait jende kea saltzen eta diru asko mugitzen ibili da. Aukerak badaude, alternatibak badaude eta Euskal Herrian, gauden lekuan egonda, beste asko baino azkarrago ateratzeko baliabideak ditugu. Hemengo sektore nagusia industria da eta bere garaietan adibidez izugarriko berrantolaketa bizi izan zuen. Berriz antolatuta beharko da agian baina aterako da. Tolomendi eta Tolosaldea Garatzen, elkarlanean, azterketa bat egiten ari gara; herri txikietan garatu litezkeen aktibitate ekonomikoak inguruan. Zerrenda bat egiten gaitza eta nik uste dut alternatibak egon badaudela, alde batetik lanpostuak bertan geldi daitezten eta bestetik udaltxeek baliabide gehiago eduki ditzaten, bestelako gizarte zerbitzuak eskaini ahal izateko.

**Iragarki laburrak**

- LANA**
- **Kamarera.** Kamarera behar da esperientziarekin lanubatetarako, Tolosan. 680 103959/635 752523.
- **Bigigarbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak etabar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. Irene: 638 944604. Itsaso: 695 708271.
- SALGAI**
- **3 ahari eta esne tankea.** 3 ahari latxa mutur gorri eta esnea hozteko 250 litroko tankea. Harrematarako deitu 948 504498 telefonora.



laz Naturaldia jardunaldien baitan, omenaldia egin zieten Joakin Araujo eta Miguel Delibes de Castrori. E. EZEIZA

## Jarduera ugari udaberriari ongietorria emateko

**Tolosa** » Erakusketak, Naturaldia, musika eta zinemak osatzen dute, besteak beste, apirilko agenda.

### ERREDAKZIOA

Aste Santuak erdi-erdian harrapatuta helduko da kultur egitaraua apirilean. Oporraldi honek —batzuentzat luzeagoa beste batzuentzat baino—, ordea, ez du eraginik izango eta kulturari lotutako hamaika ekitaldi ikusteko aukera izango da Tolosako ohiko kultur guneetan.

Musikari tarte zabala eskainiko diote oraingoan eta Orfeoia, Musika Bandak edota Euskal Herriko ikasleen orkestrak emanaldia eskainiko dute Tolosan. Bonbereneak ere bere agenda antolatuta du asteburuetarako.

Hilabeteroko hitzorduek ere ez dute kale egingo eta jadanik ezagu-

na den Tolosa Kantarik musika jarriko dio kaleari, horixe baita euren helburua, euskal musika kale-ateratzea.

### Maiatzak 1, 2 eta 3 Gipuzkoa Encounter III

Apirilari Gipuzkoa Encounterrek hartuko dio lekukoa, maiatzaren lehen hiru egunetan ospatuko baita informatika zale hauen arteko topagunea, Usabalgo kiroldegian. Aurtengoa Tolosan eginguten den hirugarren aldia izango da eta ohi bezala jendetza bilduko da ordenagailuen festa hone-tan.

Hona hemen zehaztuta apiril-erako aurreikusituzte kultur ekitaldi eta jarduerak:

### Aranburu jauregia

■ **'Kaleidoskopia + 12'**. Mariano Arsuagaren erakusketa izango da ikusgai maiatzaren 16ra arte. Bisita orduak: 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.

Aste Santuan ordutegia zabalduko dute.

■ **'Agua Tinta'**. Tolosa Naturaldiaren baitan El Rotoren erakusketa izango da ikusgai apirilaren 19tik maiatzaren 17ra arte.

### Kultur Etxea

■ **'Tolosari buruzko historia apunteak'**. Kutxa Aulak antolatutako hitzaldi zikloa izango da apirilaren 23an eta 30ean, 18:00etatik 19:00etara.

■ **Odol ateratzea**. Odol emaleen hileroko odol ateratzeak izango dira apirilaren 20an.

■ **Tolosa Naturaldia**. Ekimenaren hitzaldi sorta izango da apirilaren 20tik 24ra.

### Leidor aretoa

■ **Euskal Herriko ikasleen orkestra**. Kontzertua izango da doan apirilaren 18an, larunbata, 19:30ean.

■ **100% Tricicle**. Ikuskizuna izango da, apirilaren 25ean, 20:30ean.

### Film emanaldiak:

■ **Apirilak 8, asteazkena**. *A ciegas*, 22:30ean.

■ **Apirilak 9, osteguna**. *Mas alla de los sueños*, 17:00etan. 19:30etan, *A ciegas*. 22:30ean, *Hablame de la lluvia*.

■ **Apirilak 10, ostirala**. 17:00etan, *Lotte*. 19:30ean eta 22:30ean, *Ha-blame de la lluvia*.

■ **Apirilak 11, larunbata**. 17:00etan, *La pantera rosa 2*. 19:30ean, *A ciegas*. 22:30ean, *Che: Guerrilla*.

■ **Apirilak 12, igandea**. 17:00etan, *Lotte*. 19:30ean, *Che: Guerrilla*. 22:30ean, *Lejos de la tierra quemada*.

■ **Apirilak 13, astelehena**. 17:00etan, *Mas alla de los sueños*. 19:30ean, *Lejos de la tierra quemada*. 22:00etan, *Che: Guerrilla*.

■ **Apirilak 14, asteartea**. 17:00etan, *La pantera rosa 2*. 20:30ean, *Lejos de la tierra quemada*.

■ **Apirilak 17, ostirala**. 17:00etan *Hotel para perros*. 19:30ean eta 22:30ean, *El pistolero*.

■ **Apirilak 18, larunbata**. 22:30ean, *Slumdog millionaire*.

■ **Apirilak 19, igandea**. 17:00etan *Hotel para perros*. 19:30ean eta 22:00etan, *Slumdog millionaire*.

■ **Apirilak 20, astelehena**. 20:30ean, *Slumdog millionaire*.

### Besterik

■ **Mailegu bat, piruleta bat**. Apirilaren 23ra arte, Haur Liburutegian mailegu bakoitzeko piruleta bana jasoko dute irakurleek.

■ **'Hans kankailu' erakusketa**. Apirilaren 23ra arte, Haur Liburutegian.

■ **Tolosako Musika Bandaren kontzertua**. Gaur, Plaza Berrian, 19:30ean.

■ **Dantzari Txiki Eguna**. Gaur, egun guztian zehar zazpi talde ariko dira, Udaberri dantzari taldeak antolatuta.

■ **Tolosako Orfeoia kontzertua**. Apirilaren 8an, asteazkena, San Frantzisko elizan, 20:30ean.

■ **'Zientziaren heroia'**. Zientzia tailerra izango da apirilaren 17an, 22:00etatik 13:00etara.

■ **Liburu zozketa**. Apirilaren 23an Aranburu liburutegian liburuak maileguan eramaten dituzten artean.

■ **Tolosa Kantari**. Hilaren azken larunbatean, apirilaren 25ean, Tontokaletik abiatuta, 12:00etatik aurrera.

## Laburrak

### Erramu-bedeinkazioa egingo dute bihar

**ERLUJOA** • Bihar, Erramu Igandea denez erramu-bedeinkazioa egingo dute Tolosan eta Ibarrran. Hauek izango dira lekua eta ordu-tegia: Santa Marian, 10:45ean; Santa Klaran, 09:45ean; Amaro-tzen, 11:00etan; Ibarako San Bartolomen 11:00etan; Arrameleko San Joanen, 12:00etan; eta Corpus Christin eta San Frantziskon 12:30ean.

### Apirileko zine bonuak eskuratzeko aukera gaurtik

**TOLOSA** • Gaurtik aurrera eta apirilaren 11ra arte apirilko zine bonuak eskuratu ahal izango dira. Hain zuzen, gaur, 10:00etatik 13:00etara izango da horretarako aukera Leidor aretoko leihatilan eta asteburuan zine saioen ordu-tegietan. Bi bonu mota izango dira aukeran oraingoan; batetik, Aste Santuetako bonua, 6 euroren truke eskuratu ahal izango dena eta, bestetik, hamabostaldikoa, 8 euroren truke.

### Batzar Nagusien lana ezagutzeko autobusa gaur

**IRURA** • Gipuzkoako batzar nagusien lana zein den jendeari ezagutarazteko autobus bat egongo da gaur herriko enparantza nagusian, 19:30etik aurrera. Etzi ere, astelehenarekin, autobus berdina plazan izango da. Adin guztientzat egokia dela jakinarazi dute antolatzailuek.

### Aranburu jauregiko arkitektoa, Luis Peña, hil da

**TOLOSA** • Ostegun gauetan Luis Peña Gantxegi arkitekto gipuzkoarra hil zen gaixotasun luze baten ondorioz. 83 urte zituen eta bere bizitza osoan egindako lanarengatik Espainiako Arkitektoen Eskolako Urrezko Domina jaso zuen Madrilen 2004. urtean. Beste hainbat sari ere irabazi zituen eta Euskal Herriko herri askotan utzi zuen, gainera, bere ondarea. Besteak beste, Tolosako Aranburu Jauregia egin zuen eta baita Donostiako Haizeen Orrazi ezaguna eta Gasteizko Foruen Plaza ere.

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserrira - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**BEZERO ARRETA-TELEMARKETIN LANGILEA**  
(Erreferentzia 2009-IR-BA)

Donostialdeko enpresa batek langilea behar du BEZERO ARRETA-TELEMARKETIN sailean aritzeko.

**Eskaintzen da:**

- Urtea amaitu arteko kontratua (luzagarria).
- Egun osoko lanaldia txandakako ordutegiarekin.

**Eskatzen da:**

- Administrazio edo komertzio arloko ikasketak
- Harremanetarako erraztasuna
- Telefono bidez komunikatzeko trebezia
- Ofimatika programen ezagutza
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea baloetsiko da

Bidalai CV zehatza, apirilaren 9a baino lehen, [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.

**BERRI ON BAT DUGU**  
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

**TOLOSALDEAN**  
Zerbitzu  
Ofizial Berria  
BSH Taldeko  
Markentzat

**Interservice**  
Ubarburu pasealekua, 81-  
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

Interservice  
Servicio Oficial de Clientes

## UEMAren nondik norakoak azalduko dituzte etzi, hitzaldi-solasaldi bidez

**Amezketak** » Balioanitzeko gelan izango da 20:30ean eta herritarrek agertzea eskertuko dute antolatzaileek.

### ERREDAKZIOA

UEMAren nondik norakoak azalduko dituzte Amezketan etzi. Amezketako Udalak Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) nondik norakoak herritarrei helarazi nahi dizkie, eta horretarako, UEMARI buruzko hitzaldi-solasaldia antolatu du etzi, 20:30ean hasita plazako balioanitzeko gelan.

Udalak eta UEMAK nahiko lukete hitzaldi-solasaldia ahalik eta herritar gehien joateko, aurrerantzean jorratu beharreko ibilbidearen gainean proposamenak jasotzeko eta iritziak trukatzeko. UEMAKo nahiz Udaleko ordezkariak «oso garrantzitsua da herritarrek udalerri euskaldun baten alde onez konturatzeko eta horri ahalik eta etekin handiena ateratzeko».

### Dagoeneko 17 herri

Amezketako Udalak UEMAn sartzeko pausoak eman ditu azken hilabeteetan: abenduaren azken astean osoko bilkurak UEMAn sartzeko erabakia hartu zuenetik, UEMAK egungo proiektuak aurkeztu dizkiete Amezketako Udaleko hautetsi eta udal langileei, eta beren iritziak jaso dituzte.

Nolanahi ere, egitasmo horietan herritarrek parte hartzea ezinbestekoa denez, UEMAK eta Udalak euskara kontuetan herritarrek dituzten iritziak, kezak, ardurak, ideiak eta proposamenak jaso nahi dituzte.

Amezketako Udalarekin, 56 dira mankomunitatean dauden udalerriak. Horietatik 17 Tolosaldean eta Leitzaldean daude, «eta horrek egitasmo asko elkarrekin abian jartzeko aukera ematen du. Izan ere, eskualdean 30 udalerri izanik, UEMAKoak erdia baino gehiago dira, eta udalerri euskaldunen pisua oso handia da».

## Besitin eta Larraitz auzoak batzen dituen bideko obra abian da

**Alegia** » 687.495 euro kostako da paseorako bidea izango dena; maiatzerako eginda egongo da.

### ERREDAKZIOA

Alegiako Udalak diru kopuru bat jaso du, zehazki Besitin auzora (Beixtin) joateko bidea txukuntzeko izango dena. Guztira, 687.495 euro izango da Espainiako Gobernuak honetarako bideratu duen diru kopurua.

Besitin auzoa Larraitz auzoarekin lehendik ere lotuta zegoen, futbol zelai ingurutik abiatuta eta autontzako errepidea ezkerreko aldean utzita, hain zuzen. Bide hau lauzpa bost metro beheragotik igarotzen da eta horregatik, tunel bat egin zuten Udalak autoen errepidearen azpira iritsita.

Bide hau oinezkoentzat eta bizikletentzat izango da. Asmoa da



Eskuinean Amezketarako errepidea dago: paseorako bidea izango da ere. n.u.

eserleku batzuk jartzeko ere, paseatzerako joateko egokia izan dadin, hain zuzen. Adokinatutako aurretik, noski, Besitin aldera doazen herriak eta argiterirako behar direnak sartu dituzte. Baina aurki hasiko dira adokinak jartzen. Gutxi, gora-behera, guztira hilabete bateko lana zen. Beraz, apirilaren bukatzerako eginda egongo da.

### Frontoia ekinean hasiko dira konpontzen

Alegiako Elorri pilotalekuko sapaia aldatu beharra da eta horretarako beste diru kopuru bat bideratu dute. Obra hauek ekaina aldera hasiko dituzte, ikasturtea behin bukatuta. Alegiak 215.919 euro jasozuen frontoiko sapaia eraberritzeko; behar handia du honek.

## Ezker abertzaleak herri batzarrak antolatu ditu datorren astean

**Politika** » Etxerategi abian jarritako presoen dispersioaren aurkako sinadura bilketa egongo dute.

### ERREDAKZIOA

Datorren astean zehar ezker abertzaleak antolatutako herri batzarrak izango dira. Hauteskunde balarazioak eta jarraitu beharreko ildo berriak ariko dira. Gero, Etxerategi abian jarri duen presoen dispersioaren aurkako sinadura bilketa egongo dute.

Etzi Orendainen 21:00etan geladitu dira bilera egiteko eta plazan elkartzeko dira hasiera batean. Amezketan asteartean bilduko dira, 20:30ean balioanitzeko gelan.



## Apirileko erakusketa berria

**ALEGIA** » Apirila osoan zehar eta Aste Santua barne, Alegiako jubilatuen tabernan Alkiza ahizpen margolan erakusketa izango da. Oleo teknika erabili dute eta gehienbat paisaiak jorratu dituzte. Negu kutsukoak dira asko, baina erretratoak ere landu dituzte. HITZA

## Gutunak

### Zorionak Tolosaldea! Mundialak zarete!

Eskerrik asko: Lekukoa eskuz esku eraman duzuenoi; Korrika Batzordeetan antolaketak lanetan jardun duzuenoi; Korrikari gozoz ekiteko, edo ondoren indarberritzeko otordu goxoak prestatu dituzuenoi; euskararen alde diru laguntza eman duzuenoi; azpiegiturak eskainiz, trafikoa zainduz, Korrikaren berri emanez, Korrika kulturalako ekitaldietan parte hartuz... Ezin konta ahal modutara Korrika posible egin duzuenoi.

Eta gogoan izan bihar hitzordua dugula Gasteizen korrika amaierako festan! Mila esker Korrika lagunok!

**Tolosaldeko Korrika Batzordea.**

## Laburrak

### Gaur ikurrinak banatuko ditu ezker abertzaleak

**TOLOSA** » Tolosako ezber abertzaleak, hilaren 12an ospatuko den Aberri Egunean, Nazio eztabaidaguneak antolatutako ekimenetan parte hartzeko deialdia luzatu nahi die herritarrei. Egun horretan Martxa Nazionala abiatuko da Irungo Ficobatik Hendaia eta ondoren hemen ekitaldia egongo da. «Herritar guztiak beraien etxetako leiho eta balkoietan ikurrina jartzera animatu nahi ditugu, eta hori errazteko, ezker abertzaleak gaur, Trianguloan eskuragai jarriko ditugu ikurrinak».

### Leire Olaberriak atzo jaso zuen Euskadi Irratiko saria

**IKAZTEGIETA** » Leire Olaberriak Euskadi Irratiko 2008ko Kirolari Onenaren Saria atzo jaso zuen. Aginte Makila oroigarriaz gain, bere pisua ardotan ere jaso zuen pista txirindulariak, Faustino etxeak emanda. Hautagai zerrenda bat aurkeztu zaie 40tik gora entrenatzaile, teknikari, kirol aditu, eta abarri. Guztien artean Leire Olaberri aukeratu zuten. Sei urtez banatu dute sari hau: sari bera 2004. urtean Xabi Fernandez eta Iker Martinez arraunlariek eskuratu zuten.

## saridunak



HITZA  
kobraketa  
kanpaina  
2009

**ORUE**  
erretegia

Sanmaniego kalea, 3 • 20400 Tolosa  
Telefona 943 65 19 11

Kontu korrontea eman duten harpidedunen artean  
**Orue Erretegian** otordua zozketatu dugu, irabazlea:  
**Jokin Garmendia (Baliarrain)**

Atariko giltza eman duten harpidedunen artean  
**Mahalako** produktuez osaturiko saskia zozketatu dugu, irabazlea:  
**Juan Jose Aizpun (Tolosa)**

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Mahala baserria • 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499 • Tel. Mug.: 689 805 633

Saria eskuratzeko HITZA jarriko da zuekin harremanetan.



Jose Mari Iriondo, Andres Urrutia eta Juan Mari Arrue, atzo emandako prentsaurrekoan. HITZA

## Antonio Arrueren idaztiak eta hitzaldiak argitaratu ditu Euskaltzaindiak

**Asteasu** » Euskaltzaina izandako asteasuarraren testuak jaso dituzte liburu batean; hitzaurrea Antonio Zavalak egin zuen.

### ERREDAKZIOA

Euskaltzaindiak *Antonio Arrue: Idaztiak eta hitzaldiak* izeneko liburua aurkeztuko zuen atzo Donostian. Izenburuak azaltzen duenez, Antonio Arrue euskaltzainasteasuarraren hitzaldi eta hitzurreen bilduma jasotzen ditu liburuak. Urtarilean hil zen Antonio Zavala euskaltzain osoak presatutako liburua da eta berea da ere hitzaurrea. Euskaltzaindiaren *Euskaltzainak* bildumaren bosgarren zenbakia da.

Aurkezpen ekitaldian Andres Urrutia euskaltzainburua, Jose Mari Iriondo euskaltzain urgazle

eta Antonio Zavalaren kolaboratzailea eta Juan Mari Arrue, Antonio Arrueren zenaren semea izan ziren. Antonio Arrue hizlari aparta izan zela, bizia eta trebea, azaltzen dute Euskaltzaindiatik. Hitzaldi asko eman zituen han-hemenka, eta askotan, jendaurrean hitz egin baino lehen, paperean idazten zituen bere mintzaldiak. Lan horiek dira, batzuk euskaraz eta besteak gaztelaniaz, liburua osatzen dutenak.

Aurkezpenean Andres Urrutiak Tolosan jaiotako Antonio Zavala izan zuen gogoan. «Xabierrin hilibiratu genuen urte berriarekin. Han ginen euskaldun eta euskaltzale asko, eta han berbatu ginen Josemari Iriondo eta biok gaur aurkezten den liburu honi azkena emateko».

Urrutiak gaineratu zuenez, «luze joan da, egia esan, liburu honen historia. Ustekabekoa ere bai,

neurri handi batean, horretara bildu baitziren Arrue eta Zavala, biak Euskaltzaindiaren historian esanguratsu eta eragile».

Euskaltzainburuak zeharka ezagutzen zituen Arrueren zertzeladak, euskaltzainkide batzuek, Xabier Kintanak esaterako, esanak eta kontatuak. «Txukun darabil euskara Arruek; beste horrenbeste Zavalak», azaltzen du Urrutiak. «Euren ideiei muzinik egin gabe, ederto jakin zuten biek euskararen mesederako lana egiten eta ointzen».

Horrexegatik Euskaltzaindiak Arrueri «halako aitortza» zor ziola azaldu zuen Urrutiak, liburuarekin «zati batez bederen, ordaindu nahi duguna. Ordainketa horren laguntzaile eta abal-emaile, Antonio Zavala» izan dela zehaztu zuen. Biak oroitu nahi izan ditu Euskaltzaindiak liburua argitaratuz.

## Martinezek, brontzeko hiru domina European

**Halterofilia** » Olaederra kiroldegiko frontoian Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute gaur, junior eta absoluto mailetan.

### ERREDAKZIOA

Danena-Olaederrako halterofilia taldeko pultsularia den Teddy Martinezek hiru brontzeko dominak lortu berri ditu Ciechanown (Polonia) egin den Europa Batasuneko Txapelketan. Arrakandan 135 kilo, bi denboratan 173 kilo eta total olinpikoan 310 kilo altxatu zituen. Halterofilia taldeetik azaldu dutenez, «bazen garaia nazioarteko txapelketa batean domina lortzeko». Hurrengo Europako Absolutu Txapelketa izango du Bukaresten (Errumania), gaur

hasi eta hilaren 12ra arte. Martinez 85 kiloko mailan lehiatzen da. Pisu hori zaila da, maila handia baitago.

Bestalde, Basaurin (Bizkaia) AEK Trofeoa antolatu zen euskararen alde orain gutxi. Danena-Olaederrako pultsulariek emaitza hauek lortu zituzten: 1. postua, kadete mailan, Iker Hernandezek. 2. postua, infantil mailan, Iñaki Zubelzuk. 5. postua, infantil mailan, Alain Modelak. 1. postua, alebin mailan, Asier Gallegok.

### Gipuzkoako onenak lehiatzen

Eskualdeko pultsulariak ariko diren hurrengo txapelketa gaur bertan izango da. Villabonako Olaederra kiroldegiko frontoian Gipuzkoako Txapelketa izango da jokoan, junior eta absolutu mailetan. Txapelketari hasiera emango zaio 10:45ean.

## Laburrak

### Alkizalete I.a eta II.a Urrezko Aizkolarietan

**ASTEASU** » Urrezko Aizkolarien Txapelketa Zegaman eta Urdiainen izango dira asteburuan. Zegaman gaur Alkizalete I.a asteasuarrari ariko da beste zazpi aizkolarierekin batera, 20:00etatik aurrera. Ondo aritzen diren lehen biak saikatu dira. Urdiainen bihar 12:00etan izango da hurrengo zita. Bertan Alkizalete II.a ariko da.

### Patxi Urizar duatloi zirkuituan buru doa

**VILLABONA** » Patxi Urizar billabonatarra duatloi zirkuituan buru doa. Bihar zirkuituaren beste proba bat izango da Azkoitian eta bertan Gipuzkoako X. Duatloi Motz Txapelketa erabakiko da ere.

### Osoko bilkurara deitu dute etzirako, 20:00etan

**VILLABONA** » Udalak osoko bilkurara deitu du etzirako. Udaletxean izango da, 20:00etan. Bertan hiru gai jorratuko dira: aurreko bilkurari dagokion akta onartzea; Larrea-uzoan lurpeko aparkalekuen obrak esleitzeko proposamena eta Behar Zana elkartearen eskaera egin zaiei erakuntza, instalazio eta obrak gainera zerga-kitapenari hoberia aplikatzeko.

### 'Che Guerrilla' filma, asteburuan Gurea aretoan

**VILLABONA** » Gurea aretoan *Che Guerrilla* filma emango dute asteburu honetan: gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean izango dira saioak.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



BIDEGI  
GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA  
AGENCIA GIPUZKOANA DE INFRAESTRUCTURAS

## TRAFIKO MOZKETA A-8an ZARAUTZ ETA ARITZETA ARTEAN

Larunbatetik igandera (apirilaren 4tik 5era) bitarteko gauean trafikoa erabat moztuko da A-8 autobidean, Zarautz eta Aritzeta artean, A-8 autobidea sei lerrotara zabaltzeko eta Donostiako 2. ingurabidea egiteko lanak direla eta.

Bi galtzadak itxita egongo dira larunbat gaueko hamarretatik igande goizeko seiak bitartean (apirilaren 4ko 22:00 - apirilaren 5eko 06:00).

Igande goizeko seieta (06:00) Bilborako noranzkoa irekiko da, eta arratsaldeko ordu bietan (14:00), Irun aldera doana.

**Ordezko bidea: N-634 errepidea.**  
Informazio xeheagorik nahi izanez gero, begiratu

[www.bidegi.net](http://www.bidegi.net)

# Txikienen dantzak izango dira protagonistak gaur

**Tolosa** » IV. Dantzari Txiki Eguna da gaurkoa; herriko Udaberri taldeak antolatu ohi du eta 300 bat ume bilduko dira dantzatzeko.

## ERREDAKZIOA

Txikienen jirak eta bueltak izango dira gaur nagusi Tolosan. Herriko Udaberri dantza taldeak orain lau urte antolatzen duen Dantzari Txiki Eguna da gaurkoa eta Euskal Herriko zazpi herrialdeetako 300 bat haur gurturatu da herrira kaleetan barna dantzatzeko. Aipatu behar da Udaberri dantza taldeak euskal dantza tradizionala duela oinarri.

## Egitaraua

Egitaraua beste urteetako bezalako izango da, gutxi gorabehera. 10:00etan bilduko dira guztiak eta hamaiketako egin ostean, 11:30ean edo, hasiko dira Alde Zaharrean barna dantzatzeko kalejira. Talde bakoitzak aurretik zehaztutako ibilbidea egingo du eta aipatu moduan, Alde Zaharrean eta inguruko kaleetan ibiliko dira dantzari.

12:30ean Triangulon elkartuko dira eta denak batera, kalejira, Plaza Berrira joango dira. Goizaldeko egitaraua 13:00etan amaitu-



laz ere 300 bat haur bildu zen Dantzari Txiki Eguna ospatzeko, N. GARZIA

ko dute. Ondoren bakoitzak bere aldetik bazkalduko du eta 16:30ean bilduko dira berriz ere Plaza Berrian. 17:00etan hasiko dute emanaldia eta 18:30ean amaituko dute txikienek dantzatzeko euren txanda.

Helduek orduan hartuko dute lekukoa eta 20:00etan hasiko dute triki poteoa Udaletxeko plazan. Poteatu eta gero afaria ere egingo dute Zerkausian 21:15ak aldera eta amaitzeko dantzaldia ere izango dute Oxabi taldearekin.

# Dena prest Araxesko IX. Itzulia egiteko

**Tolosa** » Bihar izango da Amartz Auzo Elkaratek bi urtez antolatu ohi duen ibilaldia; 9 eta 11 ordu bitarteko itzulia izango da.

## ERREDAKZIOA

Bihar 07:00etan hasiko da Amartz Auzo Elkaratek bi urtez behin antolatzen duen Araxesko IX. Itzulia. 1989. urtetik antolatzen dute itzulia, elkarteren sorreran 15. urteurrenean, hain justu.

Ibilaldia bukatzeko gutxieneko denbora 9 ordukoa da eta gehien-go, aldiz, 11 ordukoa eta honakoa da ibilbidea: Amartz auzoa (eskoletatik hasiko da)-Ollaun menditxo-Otsabio-Añi-Zarate-Azkarate-Atallu-Santa Barbara-Gorriti-Musaio-Merku-Ulizar-Uli-Gazte lu-Leaburu-Amarotz auzoa. Bide-

an zehar zortzi kontrol igaro behar dituzte parte-hartzaileek eta alde aurretik zehaztutako ordutegiaren barruan iristen badira, gainera, diploma bat jasoko dute oroigarri gisa.

Proba banaka zein taldeka egin daiteke eta antolatzaileek jakiak zein edariak banatuko dituztela ere esan dute. Parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko, gainera, Gurutze Gorriaren zerbitzuak izango dira ibilbidean zehar.

## Bihar ere izena eman ahal da

Oraindik ere badago parte hartzeko aukera eta horretarako bihar bertan izango da aukera, 06:00etatik 06:45etara bitarte Amartzten bertan.

Informazio gehiago nahi duenarentzat elkaratek [www.amarozauzoa.com](http://www.amarozauzoa.com) webgunean jarri ditu ibilbidearen xehetasun guztiak.

# Villabona, Zizurkil eta Lizartzako ahotsak Haur Kantari Jaialdian

**Txapelketa** » Gaur izango da saioa Azkoitian; bakarleri bakarra, lau bikote eta bederatzit talde ariko dira.

## ERREDAKZIOA

Gaur 18:00etatik aurrera Azkoitia-ko Baztarto antzokian ospatuko den Gipuzkoako 2009ko Haur

Kantari Jaialdian Lizartzako, Villabonako eta Zizurkilgo parte hartzaileak izango dira.

## Bakarleri bat eta bi talde

Zehazki, Lizartzako Mateo Zubeldia bakarleri bezala ariko da eta T. Monzon eta J. M. Esnaolaren *Bakartasun* kantua abestuko du. Aipatu behar da bakarleri bezala ariko den bakarra izango dela, gainera, lizartzarra.

Zizurkiletik, berriz, Zizurkil izeneko taldeak hartuko du parte eta bi kantu interpretatuko ditu: Mikel Urdangarinen *Badira hiru aste* eta Alaitz eta Maiderreren *Inshala*. Villabonako beste talde bat ere ariko da, Loatzo taldea, hain zuzen, eta Etxakit taldearen *Urrun izan arren* eskainiko du.

Guztira bederatzit taldek hartuko dute parte Azkoitia-ko txapelketa eta baita lau bikotek ere.



Afro-brasildar perkusio ikastaroa larunbat goizeetan izango da, MULAMBO

# Afro-brasildar perkusio ikastaroa

## ERREDAKZIOA

Tolosako Mulambo Kultur Elkaratek afro-brasildar perkusio ikastaroa eskainiko du larunbat goizeetan (10:30etik 13:30era) Bonbernean.

Ikastaroa apirila, maiatza eta ekaina hilabeteetan zehar izango da eta 30 euro balio du. Izena emateko 660 969 581 telefono zenbakia

ra deitu behar da edota [mulambo@gmail.com](mailto:mulambo@gmail.com) helbide elektronikora idatzi.

**Zuzenketa.** Atzoko aleko 7. orrialdean irakurri ahal zen Blanca Urgell EHUko irakaslearen kronikaren izenburuak *Mendizabal oroituz* zioen arren, *Aierbe oroituz* esan behar harko luke. Barkatu eragozpenak.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da**

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



## Arzuagaren lanak ikusgai gaurtik aurrera

**KULTURA** ● Mariano Arzuagaren *Kaleidoskopia +12* erakusketa inauguratuko dute gaur 12:30ean. Hau ikusgai izango da maiatzaren 16ra bitartean. Arzuagak Aranburun erakusten duen hirugarren erakusketa da hau eta bertan, azken hamabi urteetan egindako lanak aurki daitezke. Labirintoak eta ate sekretuak izeneko pintura serietik hasita, serigrafian, infografi-irudiak, eta arkitekturen esku-hartzeetarako egindako bozetoak aurki daitezke. Gainera, Aste Santuak direla eta, goizez nahiz arratsaldez egongo da zabalik erakusketa. **E. EZBZA**



## Elkartasun kanpaina festa giroan amaitu dute

**GIZARTEA** ● Hirukide ikastetxeko ikasleek elkartasun jaialdiarekin eman zioten atzo amaiera aurtengo elkartasun kanpainari. Oraingo honetan, Peruko San Geronimon bi proiektu gara-tzeko helburuarekin bildu da dirua. Urtero bezala, hainbat ekitaldi gauzatu dituzte astean zehar, eta atzo jai giroan bukatu zuten. 17:00etan hasita jokuak egin zituzten DBHko ikasle-ek, saskibaloian eta bideo jokoetan jolastuz. Iluntzean berri, musika eta festa nagusitu ziren ikastetxean, afariarekin batera. **E. EZBZA**

# Bertako produktuak eta larunbateroko merkatua sustatzeko hainbat ekitaldi

**Ekonomia** » Tolosa Gourmeten baitan, azoka bultzatzeko, sukaldariak Zerkausian erosi eta sukaldatuko dute.

### ESTI EZEIZA

Tolosako Udalak eta Slow Food Gipuzkoa elkarteak bat egin dute Tolosako larunbateroko azoka eta bertako produktuak sustatzeko asmoz. Atzo aurkeztu zuten ekimena, eta honekin lotuta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Agerraldian izan ziren Josemi Gomez zinegotzia eta Slow Food-eko Roberto Ruiz, Felix Belaunzarán eta Sonia Tapia sukaldariak.

Tolosa Gourmetek oraingo honetan, ohiko jaialdi gastronomikoa egin beharrean, bertako produktuei protagonismo berezia ematearren, beste jarduerak batzuk pres-tatu ditu. Denera hiru izango dira, eta lehendabizikoa hilaren 11n izango da.

### Merkatutik sukaldera

Tolosako Azokak + Slow Food + Km 0 izeneko ekimen honen baitan hilabete bakoitzeko lehendabiziko larunbatean, Slow Food mugimenduko sukaldari bat etorriko da Tolosa. Zerkausiko merkatuan, bertako eta garaiko produktuak erosiiko ditu, eta ondoren, bertan sukaldatuko ditu. Platera prestatu-takoa, anoak banatuko dituzte bertaratzaren diren artean.

Lehendabizikoa, nahiz eta hila-beteko lehen larunbata ez izan api-



Atzo goizean aurkeztu zuten ekimena Udaleko eta Slow Foodeko ordezkariak. **E. EZEIZA**

rilaren 11n etorriko da. Irizar eskolako sukaldaria eta Donostiako Morgan jatetxeko sukaldaria den Federico Pacha ariko da erosketak egin eta sukaldatzen.

Hurrengo hilabeteetako lehen larunbatetan, izen handiko sukaldariak prozesu bera jarraituko dute. Besteak beste, hauek izango dira: David de Jorge, sukaldari, idazle eta gastronomia artikulugile; Enrique Fleischmann, mexikar sukaldaria, Akelarreko sukaldaria eta bertako I+Dko arduraduna; Pablo Loureiro, Donostiako Branka jatetxeko sukaldari arduraduna; Hondarribiko Slow Foodeko sukaldariak; David Campay, Gourmet Campay jaki dendako arduraduna; Pablo Vicari, sukaldari argentinarra; eta azkenik, Roberto Ruiz eta Felix Belaunzarán eskualdeko sukaldariak.

### Slow Food, lanerako filosofia

Slow Food (janari mantsoa) 1986an Italian irabazi asmorik gabe sortutako nazioarteko erakundea da. Roberto Ruiz Frontoneko sukaldaria bertako kidea da, eta bere hitzetan, Slow Food lanerako filosofia bat da, eta beraien helburua da Gipuzkoako jatetxe-tara zabaltzea lan egiteko modu hau. Ruizek garbi agertzen du produktua dela protagonista, eta ekoizle eta jatetxeen arteko bidea murriztu behar dela. Horretarako «baseritarren eta sukaldarien arteko akordioak bultzatzeagarrantzitsuak» direla uste du. Km 0 adierazpenarekin Slow Food-eko esan nahi dute produktuek ahalik eta ibilbide txikiena egin behar dutela platerera iristeko. Bestalde, gaineratu zuen Roberto Ruizek atzo, bitartekorik ez izatean, eta

gertukoia izatean, produktuarekiko konfidantza ere bermatzen duela. «Bai baitakizu nondik datozren, eta nola ekoiztea izan den», agertu zuen.

Gipuzkoan, ondorengo produk-


tuak daude Slow Food mugimenduaren barruan: Getariako ilarrak, udazkeneko euskal porru orlegia, betizua, euskal oiloa eta euskal txerria.

Aurrera begira, ikasleekin ere hainbat jarduerak egiteko asmoa dute Slow Foodekoek, «etorkizuneko kontsumitzaileak beraiek izango baitira», azaldu zuten atzo sukaldariak. Elkarrearen asmoetako bat baita, gaztetxoengan jateko eta sukaldatzeko ohitura onak sortzea. Baina oraindik zehazteke daukate zeintzuk izango diren ekitaldi nagusiak.

### Urtean zehar, beste hainbat ekitaldi

Udazkenari ongi etorria emateko, jaialdi berezi bat antolatuko dute Slow Foodekoek Tolosan. Udaberriari Hondarribian eman zioten eta Donostian udari.

Honetaz gain, Roberto Ruiz eta Felix Belaunzarán Km 0 deritzan menua jarriko dute martxan beraien jatetxeetan Aste Santuko oporraldian. Menu hau osatzeko gertuko produktuak erabiliko dituzte, edo hain gertukoak izan ez arren, ekoizleengandik zuzenean jasatukoak.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Musika

■ **Tolosa.** Hodeiertz eta Ordiziako Oroith abesbatzen kontzertua Santa Klara komentuan 20:15ean.  
■ **Tolosa.** Blood Sekeres, Naut eta Lines ariko dira Bonberenean 22:30ean. Hondarribiatik datoz beraien erritmo eta musika estilok azagutuaraztera, eta Blood Sekeres taldearen kasuan, euren maketa berria Blood Sex and Rock N Roll izenekoa aurkeztuko du.  
■ **Tolosa.** Tolosa Musika Bandak haurrei eskainitako kontzertu berezia eskainiko du plaza Berrian dultzainarekin batera, 19:30ean.

### Deialdiak

■ **Irura.** Gipuzkoako batzar nagusien lana zein den jendeari ezagutarazteko autobus bat egongo da herriko enparantza nagusian, 19:30ean.  
■ **Leitza.** Plazan 11:00etan apustua: Jon Otegi eta Joseba Zabaleta neurtuko dira raketan 30 tantutara, Bi pilotari hauen arteko apustuan, Musuzar jatetxean menu bat jokoan dago.  
■ **Tolosa.** Dantzari Txiki Eguna: Euskal Herriko zazpi herrialdeetako dantzari taldeak kalez kale dantzan eguerdi partean eta arratsaldez Plaza Berrian emanaldia.  
■ **Tolosa.** Bertso afaria lurre elkarrean larunbatean 21:00etan Jexux Mari Irazu, Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidirekin. Sarrerak salgai daude Raku tabernan eta Galtzaundiren egoitzan 25 eurotan.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Mariano Arsuaga artista tolosarraren *Kaleidoskopia+12* erakusketa Aranburu Jauregian.

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan: *Un chihuahua en Beverly Hills* (haur zinema) 17:00etan eta *Mi nombre es Harvey Milk* filma 19:30ean eta 22:30ean.  
■ **Villabona.** Gurea aretoan: *Che Guerrilla* filma 19:30ean eta 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalzarreta, 1.943 673649.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

Ernioebean institutuak Euskal Astea amaitu berri du. Bost egunetan zehar hainbat ekitaldi egin dituzte eta atzo izan zuten amaiera ekitaldia Gurea aretoan. Bertsoak eta dantza izan ziren protagonista.

# Bertsoa eta dantza azkenerako

## ERREDAKZIOA

**E**rnioebean institutuak amaiera eman zion atzo Euskal Asteari Gurea aretoan egindako jaialdiarekin. Bertsoak eta dantza izan ziren protagonistak eta bi alorretan iaioak direla erakutsi zuten ikasleek. Bertsoan, gainera, Unai eta Beñat Gaztelumendi anaien parte-hartzea izan zuten.

Hainbat ekitaldi egin dituzte aurtengo Euskal Astea. Toti Martinez de Lezea izan zen Inkisizioa eta sorginei buruz hitz egiten eta baita bere azken liburua ere. Karrera ipuin-kontalariaren saioa ere izan zuten. Bestalde, talo eta dantza tailerrak izan zituzten. 225 ikasle daude Ernioebean eta bakoitzak taloa egin eta jan ere egin zuten.

Ostegunean, noski, Korrikarekin bat egin zuten. Eta atzokoan, Gureako jaialdiaz gain, institutuaren xiba jokoan izan zuten, dantza tailerran ikasitakoa erakusteko aukera eta hamaiketako ere. «Oso gusturaz» azaldu dira Ernioeakoak Euskal Astea nola joan den ikusita.



Dantza saioaren une bat; behean, ezkerrean, Ernioeako ikasleak bertsoan eta, eskuinean, Gaztelumendi anaiak. i.g.

## A Agurrak

**agurrak** urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

**sarrerak**

sarrera parearen **sariduna**

Aloña Usandizaga (Irura)

**Bruesa GBC**  
Alta Gestion Fuenlabrada  
Donostiako Ilunben  
Apirilak 5, Igandea • 12:30ean

sarrerak Hitzaren egoitzan harpidetun txartelarekin

**Bertsolarhitza** info **desafioa**

**FINALA**

**Alegia vs. Altzo**

Non: Ibarraoko Gaztetxean  
Noiz: Apirilak 4, larunbata 14:00etan

**Bertso Bazkarirako sarrerak 20 euro**  
Nor: Hiru bertso eskoletako kidearen bati eskatuz edo eta 687 41 01 18 telefono zenbakian.

Antolatzaileak: Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak.

**hitza** info

Gipuzkoako Bertsozale Elkarte